

IMPACTO SOCIAL DE UN POSIBLE CIERRE DE LA NAVAL DE SESTAO

"Los gozos y las esperanzas, las tristezas y las angustias de los hombres de nuestro tiempo, sobre todo de los pobres y de cuantos sufren, son a la vez gozos y esperanzas, tristezas y angustias de los discípulos de Cristo. *Concilio Vaticano II, GS n. 1*

Ante todo las personas

La viabilidad económica de una empresa es, sin duda, una dimensión esencial en cualquier análisis de sus perspectivas presentes y futuras. Pero la necesaria atención a los aspectos económicos no puede hacernos olvidar las angustias e incertidumbres a las que se enfrentan las personas y comunidades amenazadas con un posible cierre de fuerte impacto social. En sus reivindicaciones y demandas se expresan expectativas razonables que merecen la atención de todos/as los que no estamos directamente afectados.

Atención a los más débiles

La incertidumbre sobre el futuro de La Naval de Sestao afecta en primer lugar a sus empleados directos, pero no sólo a ellos. La sección más débil de la cadena la constituyen, aquí como en otras ocasiones, los trabajadores/as de decenas de empresas auxiliares que son una parte importante del tejido económico y social de la Margen Izquierda. Estas personas y sus familias son los que más fuertemente pueden sufrir las consecuencias de un cese brusco de actividad laboral. Muchas veces han sido los grandes olvidados. Por eso su situación y su futuro merecen una atención especial por parte de los poderes públicos.

Priorizar la búsqueda dialogada de soluciones

Desde hace dos décadas venimos asistiendo a una transformación progresiva de la actividad económica en la Margen Izquierda que afecta especialmente a las grandes industrias tradicionales. Los avances que en esta compleja tarea se han podido ir realizando son el resultado de los esfuerzos coordinados de muchas instituciones e iniciativas, tanto públicas como privadas. Este mismo espíritu de colaboración debería facilitar la exploración de posibles salidas a la situación actual. No es el momento para la confrontación partidista sino para la búsqueda del mejor acuerdo posible en una compleja encrucijada. Sin confundir las responsabilidades específicas de cada cual, insistimos en la necesidad de una disposición real de las diferentes administraciones para colaborar en una tarea que nos incumbe a todos. Debería ser posible poner el bien social de las comunidades, personas y familias afectadas por encima de banderas ideológicas o intereses estratégicos, sin duda legítimos en otras circunstancias.

Flexibilidad e imaginación

Vislumbrar un futuro viable para la industria en cuestión supone un esfuerzo no sólo de coordinación e imaginación. También es necesaria flexibilidad en todas las partes implicadas. La búsqueda de un proyecto económico sostenible a medio y largo plazo en éste como en otros sectores económicos, hará inevitables decisiones y cambios no siempre fáciles de asimilar. Sin lesión del derecho de las partes a defender por medios pacíficos sus intereses legítimos, la tarea pendiente sólo podrá llevarse a buen puerto si todos los grupos implicados hacen lo posible por acercar posiciones, procurando acomodar las preocupaciones y los argumentos razonables de unos y otros.

Delegación de Pastoral Social. Obispado de Bilbao
Consejo Pastoral de Sestao

SESTAOKO 'LA NAVAL'en BALIZKO IXTEAREN GIZARTE ERAGINA

"Oraingo gizon-emakumeen poz eta itxaropenak, tristura eta larritasunak, batez ere behartsuenak eta nahigabetu guztienak, Kristoren ikasleen poz eta itxaropen, tristura eta larritasun ere badira".
Vatikanoko II. Kontzilioa, GS 1 zk.a.

Gauza guztien gainetik, pertsonak

Enpresaren ekonomia bideragarritasuna da, zalantzarik gabe, bere oraingo eta geroko aukeren edozein analisisen funtsezko alderdia. Baina ekonomia alderdiei arreta eskaini behar bazaie ere, hauek ez dizkigute ahaztarazi behar gizarte eragin gogorreko balizko ixtearen mehatxupearan dauden pertsona eta elkartearen larritasun eta ziurgabetasunak. Beren errebindikazio eta eskaeretan zuzeneko eragina jasaten ez dugunon arreta merezi duten zentzuzko itxaropen batzuk adierazten dira.

Ahulენტzako arreta

Sestaoko 'La Naval'en geroari buruzko ziurgabetasunak bertako langileengan eragiten du lehenengo, baina ez bakarrik beraiengan. Beste behin ere, Ezkerraldeko ekonomia eta gizarte sareko zati garrantzitsua diren hamaikatxo enpresa laguntzaileetako langileak dira kateko sekziorik makalena. Pertsona hauek eta beren familiek jasan ditzakete lan jardueraren bat-bateko etetearen ondorio larrienak. Askotan ahaztu gara beraietaz. Horregatik, beren egoera eta etorkizunak aparteko arreta merezi dute botere publikoen aldetik.

Konponbideak elkarrizketaren bidez bilatu

Azken bi hamarkadetan Ezkerraldeko jarduera ekonomikoaren etengabeko eraldaketa bizi dugu eta industria tradizional handietan nabarmentzen da gehien. Zeregin zail honetan aurrera egin bada, erakunde eta ekimen publiko eta pribatuaren ahalegin koordinatuei esker izan da. Lankidetzaren berak erraztu beharko luke gaurko egoerarentzako balizko irtenbideen miaketa. Ez da alderdien arteko norgehiagokarako garaia, bidegurutze konplexu honetan ahalik eta akordio onena bilatzekoa baizik. Bakoitzaren berriazko erantzukizunak nahastatu gabe, administrazio desberdinek guztioi dagokigun egitekoan laguntzeko benetako prestasuna izatea ezinbestekoa dela diogu berriz ere. Egoera honen eraginak bizi dituzten elkarte, pertsona eta familien on soziala beste baldintza batzuetan guztiz bidezkoak izan litezkeen bandera ideologiko edo interes estrategikoen gainetik jarri beharko lirakeke.

Malgutasuna eta irudimena

Delako industriarentzako etorkizun bideragarria antzematea ez da koordinazio eta imajinazio saioa bakarrik. Tartean dauden alde guztien malgutasuna ere beharrezkoa da. Epe ertain eta luzera sektore ekonomiko honetan nahiz beste batzuetan egitasmo ekonomiko jasangarria bilatzeak beti erraz onartu ezingo diren erabaki eta aldaketak ekarriko ditu. Alde desberdinek beren interes legitimoak bide baketsuetatik defendatzeko duten eskubidea urratu gabe, zeregin hau ondo burutuko bada, tartean dauden talde guztiek beren esku dagoen guztia egin beharko dute jarrerak hurbiltzeko, batzuen eta besteen ardura eta argumentu zentzudunak uztartzen saiatuz.

Gizarte Pastoraltzarako Ordezkaritza. Bilboko Gotzaitegia
Sestaoko Pastoral Kontseilua